

Zumaiara bizitzera iritsi berri direnentzat harrera protokoloa

Zumaiako
Udala



ZUMAI
BIZITZEKO
DA

1. Sarrera	3
2. Harrera protokoloaren oinarriak	4
2.1 Helburuak	4
2.2 Printzipio eta ezaugarri nagusiak	5
2.3 Harrera subjektuak	6
3. Harrera prozedura	7
3.1 Harrera protokoloaren prozeduraren aurkezpena	7
3.1.1 Lehen harreman guneak	8
3.1.2 Harrera	9
3.1.3 Oinarrizko beharrianak atzematea	11
3.1.4 Integrazio prozesua jarraituz	13
4. Harrera protokoloa garatzeko urratsak	16
4.1. Harrera protokoloaren urratsak eragile bakoitzaren arabera	16
5. Koordinazio eta baloraziorako irizpideak	39
5.1 Koordinazio proposamena	39

1. Sarrera

Hurrengo orriotan agertzen dena, Zumaiara etorri berrientzat harrera protokoloa da. Harrera egingo duten eragile guztientzat abiapuntu bera jartzeko asmoarekin sortua da dokumentu hau, eztabaida eta hausnarketaren bitartez, guztion artean sortutako protokolo ireki eta dinamikoa izatera iritsi nahi duelarik.

Protokolo honek jasotzen dituen eduki, zerbitzu eta baliabide guztiak egun batetik bestera sortu eta garatu baino, era artikulatu eta progresiboan sortzen joateko proposamena biltzen du.

Aipatzekoa da ez dela hutsaletik hasten den prozesua, eta hori dela eta, testuinguruan kokatzeko eta harrera protokolo bat sortzeko asmoaren inguruan hainbat ideia luzatu nahi dira:

Prozesu honen abiapuntua Zumaiako Udalak, Aztikerrekin batera jatorri aniztasuna eta elkarbizitzari buruz, 2013an egin zen azterlan kualitatiboa izan da. Ikerketa horren ondorioak herritarrei zein herriko eragileei zuzenean ezagutarazi zitzaizkien, eta norbanako eta eragileen arteko hausnarketa eta eztabaida bultzatuz, nahiz haien iritziak jasoz, eginiko diagnosia osatu genuen. 2014an, "ZUMAIAN, ANITZEN SAREA SORTZEN PARTAIDETZAZKO PROZESUA" garatu genuen. Jatorri eta kultura desberdinen arteko elkar ezagutza, aitortza eta elkarbizitzaren inguruan Zumaiako herritar zein eragileek dituzten balorazio, iritzi eta hautemateak jasotzea izan zuen xede; bai eta herritarren arteko elkar ezagutza eta harremana sustatuko duten elementuak adostea, eremu instituzionalean nahiz herrigintza mailan. Horretarako ANITZEN SAREA deitu genionaren eremu partekatua sortu genuen eraikuntza kolektiboaren bitartez.

Onartu behar da, gaur egun, sarea berriro aktibatu beharko genukeela, eta protokolo honekin batera bada lortu beharreko helburuetako bat.

Integrazio kontzeptuaren ikuspegia irekitzeko saiakera bat da protokoloa, hiru eremu ezberdinetako integrazioaren ikuspegia txertatzeko asmoa planteatzen delarik: integrazio sozioekonomikoa, kulturala eta politikoa. Hori dela eta, arlo kulturala eta sozioafektiboa lantzeko asmoarekin ere sortu da.

Integrazio kontzeptuarekin irekiera proposatzen den heinean, harrera eskaini beharreko eragileen inguruan ere aniztasuna bultzatzen du protokolo honek: Zumaiako errealitatetik abiatuta, harrera ez duela administrazioak soilik eskaintzen, harrera ez duela jatorri bereberek pertsonak biltzen dituen elkarrekin bakarrik egiten. Harreran inplikatuak egon daitezkeen subjektu guztiak kontuan izatearen ikuspegia bermatu nahi da protokolo honen bitartez, eta integraziorako ikuspegi ezberdinak barne biltzeak izaera osagarritu eta integraltasuna lortzean lagunduko du (komunitatearen kontzeptua helarazi etorri berriari).

2. Harrera protokoloaren oinarriak

2.1 Helburuak

Zumaiara etorri berrientzako harrera protokolo honen helburuak honakoak dira:

HELBURU OROKORRA:

- Zumaiara etorri berrientzat **Harrera integrala eskaintzea**.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egun Zumaia herriak dituen baliabide eta aukerak kontuan harturik, egungo harrera prozesuen baldintza eta kalitatea hobetzea, elkar harreman eta antolaketa egokiago bat sustatzea.
- Egun harrera eskaintzen duten eragile guztiak eta euren lana barne biltzea eta balioan jartzea.
- Harrera prozesuetako subjektu eta eragile gehiagoren inplikazioa sustatzea: gaur egun parte hartzen duten eragileez gain, ikuspegi integralagoa izateari begira eragile, sail eta eremu gehiago biltzea protokolo honen baitan, baita maila pertsonalean harrera gaietan inplikatzeke prest leudeken norbanakoak ere.
- Zumaiara iritsi berri diren herritarren beharretatik abiatutakoa izatea, errealitate eta ikuspegi ezberdinen aniztasuna kontuan izango dituen.

ZEHARKAKO HELBURUAK:

- Zumaiara iritsi berrien eta bertako herritarren arteko elkar harreman, ezagutza eta elkarbizitza indartzeari begira urratsak ematea.
- Erakunde publiko, pribatu, herritar, elkarte eta komunitate ezberdinen arteko elkarlana sustatzea.

2.2 Printzipio eta ezaugarri nagusiak

Harrera protokoloak izan beharreko printzipio eta ezaugarriak honakoak izango dira:

- **Jatorri eta kultur aniztasunak herria aberasten du.** Zumaiako herritarren kultur erreferentzia eta adierazpideak herriaren ondare garrantzitsu bat dira, Zumaia anitza da eta hori herriaren indargune bezala ulertzen da.
- **Integraltasunera urratsak emango ditu.**
 - Integrazioaren bidean hiru oinarrietatik erantzuna emateko gaitasunarekin.
 - Harrera eta arreta pertsonalizatua eta beharrian eta egoera ezberdinetara ahalik eta gehien egokitzeko gaitasunarekin.
 - Informazio eskaintza zabala eta osatua, koordinazio eraginkor bati erantzunez.
 - Informazioa eskaintzeaz gain, entzuna izateko aukera eskainiko duena
- **Hiru eremutatik abiatutako harrera izango da: Instituzionala, herritarra eta Hezkuntza eremuko.** Herriko subjektu ezberdinen artean eskainitakoa da:
 - Harrera instituzionala: Udalak eta gainontzeko administrazioek eskaintzen eta antolatzen dituzten zerbitzu eta egitasmoetatik bideratutako baliabideak izango dira.
 - Harrera herritarra: Herriko eragile, elkarte zein mugimendu ezberdinek osatutako harrera kokatzen da bertan.
 - Hezkuntza komunitatean egindako harrera: bertatik harrera lantzearen garrantzia azpimarratzen da.
- **Komunitate ikuspegiaren eta herritarren ahalduntzerako baliabideak jarriko ditu.** Pertsonen biziraupenerako zuzeneko asistentziaren ikuspegitik haratago, komunitatea sortu eta herritarrak ahalduntzeko eta integrazioarako beharrezko gaitasun pertsonalak sustatzeari begirako protokoloa da. Zuzeneko asistentziak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuak baztertu zein gutxietsi gabe, egungo egoera osatzera datorren protokoloa dugu.
- **Integrazio bidean hiru arlo kontuan hartzea ezinbestekoa da: beharrian materialak, oinarri kulturala eta arlo sozioafektiboa.** Integrazioa hiru ikuspegitatik ulertzen da, hau da, integrazioa arlo sozioekonomikoan, kulturalan eta maila politikoan uler genezake, eta bide horretan, honako hiru zutabe garrantzitsu azpimarratzen dira:
 - Batetik, oinarri edo zutabe materialaren asetzea, hau da, bizimodu duin bat eramateko pertsona orok ase behar dituen behar materialak.
 - Bestetik, oinarri materialaz haratago, oinarri edo zutabe kulturala dugu, hau da, behar materialak aseta, norbanakoaren bizitzari talde edo komunitate kokapen bat ematen laguntzen duten elementu kultural sinbolikoak. Horretan, talde/komunitatearen barruan, kode komunak daude bizitza indibidualak nahiz kolektiboak ulertzeko.

- Eta, azkenik, harremanen zutabea kokatu beharko genuke, arlo sozioafektiboa lantzearen garrantzia kokatzen dugu bertan.
- **Integrazio kulturalaren eta politikoaren baitan sakontzearen garrantzia.** Integrazio sozioekonomikoarekin zerikusia duten zerbitzuak behar beharrezkoak dira, eta egun halakoetara bideratutako hainbat zerbitzu, programa eta proiektu aurki daitezke. Harreman sozio-afektiboen garrantzia, elkar ezagutu eta elkar harremantzearen gaiak lantzen eta sakontzen joateko beharrianari erantzun nahi dio.
- **Izaera irekia eta dinamikoa duen prozesua da harrera protokoloa.** Harrera protokoloa garaian garaiko eta momentuan momentuko egoera eta beharrian berrietara egokitzeko gaitasuna izango duen protokoloa izango da, errebisio, jarraipen eta ebaluazio jarraitua izango duena. Honek protokoloa eraberritzea eta erronka berriak adostea ahalbidetuko du.

Lan honetan guztian koordinazioak garrantzia berezia hartzen du.

2.3 Harrera subjektuak

Zumaiara iritsi diren pertsona berriei harrera egitea zumaiar guztien ardurak da orokorrean. Integrazioa, elkar ezagutza eta elkar ulertzea oinarri izanik, herritar guztiek dute harreraren gaien erantzukizuna, eta horregatik protokolo honek ulertzen du harrera egiten dutenak zumaiar guztiak direla.

Hala ere, harrera protokoloaren diseinuan proposatzen diren eginbide eta ekintza zehatzak, gehienbat hemen aurkeztzen diren eragile eta subjektuei zuzendurik daude.

HARRERA EGINGO DUTEN SUBJEKTUAK	NOR DA HARRERA HONEN HARTZAILE NAGUSIA?
<p>Administrazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> -Udala -Gainontzeko administrazioak (Udalak egingo du lotura) <p>Gizarte eragileak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Iritsi berrien eskubideak lantzen dituzten elkarteak -Oinarrizko gizarte beharrianak artatzeko elkarte eta entitateak -Herriko eragile soziokultural ezberdinak 	<p>Herrira iritsi berri diren pertsona guztiak</p>

<p>Hezkuntza alorreko eragileak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ikastetxe eta formazio zentroak -Hezkuntza eremuko erakundeak (Berritzegunea) -Hezkuntza komunitateko beste hainbat eragile: <ul style="list-style-type: none"> •Guraso elkarteak •Ikastetxeetako beste hainbat elkarte (kirol arlokoak, eskolaz kanpoko jarduerak kudeatzen dituztenak, etab.) 	
--	--

3. Harrera prozedura

Harreraren prozeduraren definizioa prozesu hauen parte izango diren eragile, entitate eta udal departamenduekin landu ondoren, Zumaiara etorri berriei harrera integrala eskaintzeari begira eman beharreko hainbat urrats definitu dira.

Definitutako urrats hauek fluxugrama batean bildu dira eta egun iritsi berriaren harrerak izan beharreko prozedura biltzen du.

Lehendabizi, oinarrizko kokapen bat dator idatziz, eta hurrengo orrialdean ikus daiteke fluxugrama zein den. Fluxugrama honen azalpen gisa uler daiteke honen atzetik datozen azalpenak, hau da, urrats bakoitzaren azalpen zehatza dator atzetik.

Hala ere, ulertu eta kokatu beharrean gaude hemen proposatzen den hau 2020rako proposamen bat dela, eta berez, urtetik urtera harreraren prozedura erreparasatu egingo dela, **balorazio zehatza egin**, urte horretako ahulguneak identifikatu ondoren hurrengo urterako urrats berriak edo prozedura berriak sor daitezkeelarik.

3.1 Harrera protokoloaren prozeduraren aurkezpena

Harreraren inguruko kokapena egin den momentuan azaldu den bezala, harrera protokoloak hiru oinarriz osatutako proposamen bat luzatzen du: Harrera instituzionala, harrera herritarra, eta Hezkuntza komunitatean egiten den harrera.

Hiru eremu hauek elkarrekin harremanetan daude etengabe eta integrazio prozesu guztiek ez dituzte urrats edo pausu guztiak jarraitzen, beraz, proposamen hau ez da kronologia zurrun

baten baitan ulertu behar, baizik eta kasu guztietan antzekotasunak izan ditzakeen proposamen baten baitan.

Jarraian oinarrizko lau urratsen azalpena egingo da, kokapen bat egiteko:

1. LEHEN HARREMAN GUNEAK: pertsona bat Zumaiara iritsi berri den momentuan, lehen harrera jasotzeko aukera ezberdinak izango ditu. Gerta daiteke, lehendabiziko harreman hori bere jatorriko pertsonen elkarrekin egitea (kultur elkarrekin, esaterako) edota administrazioko egitura edo eremu batetik izatea lehendabiziko harreman edo harrera (Liburutegia, Gizarte Zerbitzuak...). Talde edo eragile hauek ez dute harrera ofizial edo ohikoa egiteko ardurarik nagusia, baina garrantzitsua da duten garrantzia eta balioaz ohartaraztea, gune hauek baitira etorri berri batek dituen lehendabiziko kontaktuak.

2. HARRERA: Lehen harrera hori, harrera eta arreta ofizial edo ohiko bilakatuko da Zumaian erroldatzera joaten den momentuan. Bertan, herrian erroldatu berri den pertsonari iritsi berriarentzat lagungarria den oinarrizko informazioa ematen zaio. Erroldatu ezin diren pertsonen kasuan, beste hainbat eragileren bitartez ere egiten da harrera hau.

3. OINARRIZKO BEHARRAK ATZEMAN: Irtsi berri bakoitzaren kasuak ezberdina dela kontuan hartuta, ulertzen da ezin zaiola integrazio kulturalerako eta harreman berriak sortzeko ekin alde aurretik oinarrizko beharrezkoak aseta ez dauden kasuetan. Harrera prozesuaren baitan, behar hauek asetzeari garrantzia presente izatea ezinbestekoa da. Horretarako, eskura dauden tresna eta baliabideen berri eman eta horiek eskuratzeko beharrezko lanketa egiten languntzea ezinbestekoa da. Oinarrizko behar horiek hizkuntzarekikoak eta pertsonen biziraupenerako oinarrizko beharrezkoak (janaria, etxebizitza, lana, hezkuntza, etab.) dira. Horrez gain, eskolaratzeko edo ikasketekiko beharrezkoak ere eremu honetan koka ditzakegu.

4. INTEGRAZIO PROZESUA ABIATUZ: Laugarren urratsean herri mailan integrazioerako jasotako bitartekoak aurkezten dira. Alde batetik herrian antolatutako **Ongi Etorri Saioak** aurkezten dira, eta baita herri mailan antolatutako beste hainbat ekimen ere, hitzaldiak, informazio saioak, etab.

Lehen harrera egiteko bidean, harrera egiten duten eragileentzat oinarrizko urrats batzuk proposatzen dira, arestian agertutako fluxugramaren urratsei jarraiki:

3.1.1 Lehen harreman guneak

Kokapena: Harreraren lehendabiziko urratsa harrera edota harremanak sortzen diren lehendabiziko espazioak ditugu. Irtsi berriak lehendabiziko aldiz aurkituko ditugun espazio formal zein ez-formaletan egin daitezkeen harrera azaltzen du lehen atal honek.

Harrera horren **helburu nagusia Zumaiara iritsi berriak diren pertsonak harrera protokoloak proposatzen dituen urratsetan txertatu eta elkar ezagutza eta elkarbizitza sustatzeko prozesu horretan barnebiltzea** litzateke.

Ez da harrera antolatu bat, hau da, harrera egiten duten eragile hauen esku geratzen dira jarraitu beharreko urratsen zehaztapena, ez baitago jokatzeko bide bakarra. Baina modu orientatiboan bada ere, espazio hauek errekonozitu eta harrera protokoloaren baitan duten garrantzia balorean jartzen da.

Zumaiara iritsi berri den pertsona batekin aurkitu eta jarraitu beharreko oinarrizko urrats batzuk proposatzen dira ondoren, kontuan izanda beti ere kasu guztiak ezberdinak direla.

Kasu edo egoera hauetarako, oinarrizko gai batzuk kontuan hartzea proposatzen zaie eragile hauei, kontuan izanik, beti ere, harrera gune formaletara bideratzea dela ardura nagusia:

- Noiz iritsi zara Herrira? Zenbat denbora da etorri zinela, zenbat denbora daramazu herrian bizitzen?
- Udalera joan al zara? Badakizu non dagoen erregistroa? Erroldatu al zara? Erroldatzearen garrantzia aipatu, eta bertan jasoko duten informazioaren berri eman.
- Baliabide kulturalak, kirolekoak, aisialdikoak, zein auzotako dinamikaren berri emateko aukera: auzoko eragileen ekimenak, kultur programazioa ...

Lehen Harrera egin dezaketen eragileak: Kultur etxea, Liburutegia, Udaltzaingoa, Kiroldegia, Gizarte Zerbitzuak, besteak beste, administrazio mailan. Gizarte eragileen artean: jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonen eskubideak aldarrikatzen dituzten elkarteak, erreferentziazko komunitate edo jatorriko elkarteak, etab.

3.1.2 Harrera

Harrera formala, udal erregistroaren baitan

Kokapena: lehen harreraren eskutik iritsita edo norbere kabuz iritsi badira ere, Udalak eta administrazioak Zumaiara etorri berriekin egingo duen harrera formalaz ari gara urrats honetan. Herritarrak errolda egiten duen momentua da honakoa.

Bertan, erroldatzen den momentuan, administrazioak pertsona horri harrera egiteko daukan lehendabiziko aukeretakoa da (ez bada lehenago gizarte beharrianetarako errekurtsioetatik beraiekin harremanetan jarri, behintzat).

Momentu horretan, harrera egingo dion Erregistroko pertsonak hainbat baliabide eta informazio eskainiko dizkio:

- Zumaiako baliabide nagusiak biltzen dituen gida emateko aukera legoke.
- "Ongi etorri" aurkezpen saiora gonbidatzen duen gutuna.
- Webgunearen berri eman, bertako helbidea luzatu eta bertan aurkituko duen informazio mota azaldu.
- Hizkuntza baliabideak eta gaitasunak:

o Bere jatorriko hizkuntza edo ama hizkuntzagaratik galdetuko zaio, Zumaian hitz egiten diren hizkuntzen erregistro bat jaso ahal izateari begira.

o Bertako hizkuntza ikasteko zein baliabide dauden aurkeztuko zaio, hizkuntzaren irakaspenak herrian integratzeko orduan duen garrantzia azpimarratuta.

- Erroldatutako pertsona emakumea den kasuetan, Berdintasun sailetik antolatutako ekimenen berri emateko aukera eskaini.

- Seme-alabak dituzten kasuetan, hezkuntza sistemaren eta matrikulazio baldintzen eta beharren inguruko argipenak eman daitezke.

- Harreraren gaiarekin antolatutako hitzaldi, jardunaldi edo ekimenen bat baldin badago, jakinarazteko aukera kontuan izan.

- Oinarrizko beharrak ase gabe dituzten pertsonen kasuan, Gizarte Zerbitzuetako helbidea eman eta bertaratzeko aukera eskaini.

Harrera formala egiteaz arduratuko den saila: Idazkaritza sailaren baitan Udal erregistroa.

Errolda ez duten herritarren lehen harrera

Kokapena: Bai lehen harrera bitartez, edo baita erroldarik gabeko pertsonekin harremana dagoen esparruetan, Zumaiara iritsi berri diren pertsonak harrera protokoloaren urratsetan txertatzeko aukera eskaintzen da. Administrazioak egiten duen lehen harreraren gai batzuk bere gain hartu daitezke.

Erroldarik ez duten herritarrek administrazioarekin eta hainbat gizarte eragilerekin sortuko duten lehendabiziko harremana arestian aipatu diren eragile horiekin izango dute, eta hori izan daiteke lehen harrera egiteko momentua.

Kokatu beharra dago, momenturen batean pertsona horiek erroldatzeko borondatea izango dutela, edota zailtasunak dituzten arren momenturen batean erroldatzea izan daitekeela euren helburua. Horrez gain, hasieratik argi azaldu behar da erroldatzeko eskubidea eta horren garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa da.

Hala ere, **erroldarik ez izateak, ezin du herrian integratzeko oztopo izan, hori dela eta baloratzen da zenbait entitatek harrerarako hainbat baliabide eskaintzea** edo Ongi etorri Saiora gonbidatzea, esaterako. Entitate edo eragile hauen esku geratuko da baloratzea zein etorri den bertara bizitzera edo bertan integrazio prozesu bat hasteko asmoarekin dabilen ala ez.

Beharrianen balorazioa egiteaz gain, hainbat baliabide eskaintzeko momentua izan daiteke:

- Zumaiako baliabide nagusiak biltzen dituen gida emateko aukera legoke.

- Erroldaren inguruko informazioa eta betekizunak

- "Ongi etorri Herrira" aurkezpen saiora gonbidapena luzatu

-Harreraren gaiarekin antolatutako hitzaldi, jardunaldi edo ekimenen bat baldin badago, jakinarazteko aukera kontuan izan.

Harrera honetan inplika daitezken eragileak: Gizarte Zerbitzuak, administrazioa mailan. Gizarte eragileen artean: jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonen eskubideak aldarrikatzen dituzten elkarteak, erreferentziazko komunitate edo jatorriko elkarteak, etab.

3.1.3 Oinarrizko beharrianak atzematea

Harrera prozesuaren baitan, oinarrizko beharrianen asetzea presente izatea ezinbestekoa da. Horretarako, eskura dauden tresna eta baliabideen berri eman eta horiek eskuratzeko beharrezko lanketa egiten laguntzea ezinbestekoa da.

Gizarte beharrianak atzematea

Kokapena: Harrera protokoloaren baitan ez dira gizarte beharrianak landu eta artatuko, baina zumaia berriak elkar ezagutza eta elkarbizitza espazio eta prozesuetan txertatzeko, beste herritar guztiak bezala, oinarrizko beharrianak aseak izatea ezinbestekoa dela ulertzen da. Hori dela eta, gizarte beharrian horien artatzea presente izatea garrantzitsua da, eta lehen harrera momentuetan baliabide horien inguruko informazioa ere eskatuko dute hainbat herritar berrik.

Gizarte beharrianen artatzea egin dezaketen espazioetan garrantzitsua da aspektu ezberdinak kontutan izatea:

- Iritsi berriari lehen harrera eta arreta eskaintzen zaio espazio hauetan.
- Balorazioaren arabera deribazio, baliabide eskaintza edo esku hartze planteatuko da bertatik.
- Beste elkarte-entitateekin koordinatuz, beste eragile horien baliabideak baliagarriak izan daitezkeen kontuan izanda, zerbitzu eta baliabideen erabilpen eraginkorra sustatuko da.
- Elkarte, entitate edota eragile hauek landu ditzaketen gaiak, besteak beste, honakoak izango dira:
 - Lehen harrera, orientazioa
 - Errolda
 - Aholkularitza juridikoa: iritsi berrien kasuen arabera aholkularitza zerbitzuak
 - Osasuna: oinarrizko osasun arreta, osasun txartela, etab.
 - Gizarte beharrianen balorazioa
 - Oinarrizko beharrianen atzematea
 - Akonpainamendua
 - Lan munduan txertatzea, lanbidea, integrazio soziolaborala
 - Hizkuntza: hizkuntzak ikasteko baliabideak, bitartekaritza eta itzulpeneko baliabideak
 - Hezkuntza: eskolarizazioa, hezkuntza baliabideak, ikasketen homologazioetarako tramiteak eta trebakuntzarako baliabideak

Harrera honetan inplika daitezkeen eragileak: gizarte zerbitzuak, hezkuntza eta euskara saila eta Mankomunitateko Enplegu zerbitzua, besteak beste, administrazio mailan. Gizarte eragileen artean: Herritarren oinarrizko beharrianak lantzen dituzten elkarteak, iritsi berrien eskubideak lantzen dituzten elkarteak.

Hizkuntza baliabideak

Kokapena: zehar lerro gisa proposatzen den urratsa dugu honakoa, gizarte beharrianen artatzearekin antzekotasunak dituelarik. Harrera eta lehen harrera egiten duten eragileek informatu dezakete hizkuntza baliabideen inguruan.

Hizkuntzaren ezagutza herrira iritsi eta bertako bizimoduan txertatu, harremanak sortu eta garatu, **elkar ezagutza sustatu eta herrian integratzeko bitarteko oso garrantzitsua** dela ulertzen da.

Euskara ikasteko herrian dauden baliabideen inguruko informazioa jaso eta eskaintzeko aukera proposatzen da. Modu honetan, Herrira iristen diren pertsona berriei beraien behar eta egoeretara egokien moldatutako baliabide eskaintza ematea errazten da.

Hezkuntza eta Euskara sailaren departamenduarekin batera lantzeko gaia da, eta horretarako koordinazio mahaia sortzeko aukera dago.

Harrera honetan inplika daitezkeen eragileak: Euskara eta Hezkuntza saila, administrazio mailan. Gizarte eragileen artean: AEK euskaltegia, euskara elkarteak, gizarte beharrianak artatzeko elkarteak.

Hezkuntza-formazio baliabideak

Kokapena: Hezkuntza eta heziketa beharrak dituzten pertsonen bideratutako urratsa litzateke honakoa. Haur eta nerabeen kasuan, zein formazio behar zehatz dituzten pertsonen bideratutako urratsa litzateke honakoa. Ikuspegi honen baitan txertatzen dira, Zumaiako ikastetxe eta formazio zentro guztiek eskaintzen dituzten baliabideak.

Errolda momentuan eta Hezkuntza Sailaren bitartez informazioa jasoko dute, eta azken honetatik bideratuko dituzte matrikulazio eta izapide gehienak.

Haur, nerabe eta gazteen kasuan integrazio eta elkar ezagutza eta aitortza ibilbide berri bat hasten da momentu honetan, eskoletan gaia lantzeak duen garrantzia azalaraziz. Gainera, haur eta gazteen kasuaz gain, hauen gurasoen integrazio prozesuan eragiteko eta sartzeko aukerak irekitzen ditu. Guraso elkarteek harrera prozesu hauetan duten inplikazioa areagotzea ere garrantzitsua litzateke ikuspegi horretatik.

Formazio zentroen kasuan berriz, adin aldaera eta aniztasun handiagoa dago, eta berauek herri mailan integrazio prozesu bat abiatzeko gune garrantzitsuak dira.

Espazio horiek duten garrantzia kontuan hartuta, Hezkuntza arloko harrera protokoloaren atalean, xehetasun gehiagorekin aurkeztuko dira aukera ezberdinak.

Hala ere, hezkuntza eta formazioaren gaiarekin amaitzera bidean, etorri berriek jatorriko herrialdean dituzten ikasketa edo formazio tituluen homologazioak aipatu beharra daude.

Harrera honetan inplika daitezken eragileak: Haur Eskolak, eskolak (Lehen zein Bigarren Hezkuntzakoak), Institutuak, Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saila.

3.1.4 Integrazio prozesua jarraituz

Ongi etorri Zumaiara!

Kokapena: Erroldatu diren momentuan banatutako gonbidapenarekin edota Zumaiako edozein gizarte eragileren gonbidapenarekin bertaratzeko aukera eskaintzen da saio honetara.

Erroldatzeko momentuan edo Zumaiako edozein gizarte eragileren bitartez emango zaie saio hauen berri. Saioa baino lehen, epe horretan etorritako guztiei gutuna bidaliko zaie Ongi etorri saiora gonbidatuz.

Udalak antolatuko dituen saioak izango dira honakoak. Hasierako saio txiki baten ondoren, herrian zehar bisita gidatua egingo da, herria bera eta bertako espazio eta zerbitzu desberdinak ezagutzeko. Antolaketarako urratsak honakoak izango lirateke:

1. Herritar berri bat errolda egitera joaten den momentuan saioaren berri eman eta kontakturako informazio eskatuko zaio, aurrerago gonbidapen gutuna bidaltzeko. Ondoren, Zumaiako Baliabideen gida ere emango dio.
2. Saioa baino bi aste lehenago, ongi etorri saioaren ardura duen teknikariak erroldatu diren herritarren profilak jasoko ditu: jatorria, adina, zein auzo edo inguruetan erroldatu diren...
3. Saioak bi zati izango ditu. Lehenengo zatian, aurkezpen saio bat egingo da. Aurkezpen honetan honako gaiak landuko dira:
 - a. Herriaren eta ezaugarri orokorren aurkezpena egingo da. Herriko ohitura eta bizimoduaren berri eman.
 - b. Jatorri eta kultur aniztasunaren ideiak balioan jarri, elkar errekonozitzearen eta elkarbizitzaren garrantzian enfasia jarri. Herriko dinamika eta egunerokoan integratu eta parte hartzeko gonbitea luzatu, herritar aktiboak izatera animatuz.
 - c. Herritar berriek dituzten zalantza edo galderi erantzuteko tarte. Galdera batzuk abiapuntu hartuta, beraien inpresio eta kezken inguruan hitz egingo dugu. Nolako izan da lehenengo kontaktua herrian? Zer informazio jaso nahiko zenuke? Zein kezka dituzu?
4. Aurkezpenaren ostean, espazio edo giro informalago bat sortzeko bisita gidatu bat egingo dugu. Honela, herria bera ezagutu eta herriko espazio eta zerbitzu ezberdinen inguruko informazioa jasoko dute.
5. Erroldatutako pertsonen profilaren arabera, herri zein auzo mailan interesgarria liratekeen elkarte, entitate edo eragile ezberdinak identifikatuko dira. Eragileak izan daitezke besteak beste:

- a. Udal ordezkariak: Alkate edo zinegotzia alde batetik, eta beharrezkoa ikus daitekeen teknikari gehiago, bestetik: kulturakoa (kultur baliabide eta programazioa aurkezteko, adibidez), Udal Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Gazteria, Berdintasuna, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, etab.
- b. Herriko Osasun Etxeko arduradun edota langile bat.
- c. Garrantzia edo interesa izan dezaketen beste hainbat elkarte:
 - i. Euskara edo euskaltzale elkarteak, feminismoaren inguruko eta berdintasunarekin lotutako elkarteak, gizarte arloko elkarteak, etab.
 - ii. Komunitate ezberdinetako zein elkarteetako ordezkariak: erroldan gehien aipatzen diren jatorriaren arabera.
 - iii. Herri mailako beste hainbat eragile: kultur arlokoak, kirolekoak, aisialdikoak.

6. Eragile hauek guztiek Ongi etorri saioan parte hartzea proposatzen da.

Informazio saioak

Kokapena: Harreraren gaiarekin interesgarriak izan daitezkeen hainbat gai lantzeko aukera ematen du bitarteko horrek. Alde batetik, iritsi berriekin lan egiten duten elkarteentzat beharrezkoa izan daitekeen informazioa landu daiteke espazio horietan. Bestalde, hainbat gairen inguruan beharrian eta erronka nagusiak gizarte eragile eta Udal administrazioaren artean elkarrekin identifikatu eta lantzeko baliagarriak izan daitezke.

Hori dela eta, alde batetik, ohiko hitzaldiak leudeke. Iritsi berrien gaiarekin zerikusia duen edo iritsi berrientzat interesekoa litzatekeen gai bat edo hainbat landu daitezke hitzaldi hauetan.

Beste alde batetik berriz, iritsi berrientzat baino harrera eta iritsi berrien beharrianak lantzen dituzten elkarte eta eragileentzat interesgarria liratekeen gaiak lantzeko aukera egon daiteke. Hori dela eta, hitzaldi izaeraz gain, hausnarketa, eztabaida eta lanerako esparru gisa ere uler daiteke honakoa.

Ekimen puntualak

Kokapena: Jatorri eta kultur aniztasunaren gaiarekin zerikusia duten ekimen puntualak antolatzeko aukera ere kontuan izatekoa da Harrera Protokoloaren baitan.

Ekimen puntual horiek etorri berrien gai eta kasuistika ezberdinak azaleratzeko eta gizarte sensibilizazioa lantzeko baliagarriak izan daitezke, batzuetan formazio edo ikaskuntza helburu bati jarraiki, eta bestetan berriz, aisialdi edota gaiaren plazaratze-ikusarazte helburuarekin.

Ekimen hauen bitartez, migrazio prozesuak eta hauek bizi izan dituzten pertsonak balioan jartzea lor daiteke.

Bertan koka ditzakegu, adibide gisa proposatzen diren honako ekimenak:

- Zumaian bizi diren kultura ezberdinak ikusarazteko eta plazaratzeko ekimenak: munduko arrozak bezalako ekimenak, kultur emanaldiak (dantza, musika, etab.)
- Migrazio prozesuen inguruko hitzaldiak: hamarkada ezberdinetan emandako migrazio prozesu ezberdinen aurkezpenak izan daitezke.
- Egungo egoera sozial eta politikoarekin zerikusia duten ekimenak: jardunaldi, hitzaldi edota erakusketa formatuetan (baita beste hainbat formatutan ere) gaur egun bizi diren errealitatetara hurbilpena eta sentsibilizazioa lantzeko baliagarriak izan daitezke (errefuxiatuen gaia, esaterako).
- Harrera protokoloarekin zerikusia duten beste herrietako edota herrialdetako adibide eta ereduen aurkezpenak.

Integrazio kulturalerako bitartekoak

Kokapena: eroldaren momentuan emandako informazioaren bitartez, Ongi etorri saioetan emandako argibideekin, iritsi berrien elkarteek emandako informazioarekin, edo herrian bertan egindako komunikazio lanarekin iritsiko lirateke herritar iritsi berriak espazio hauetara.

Oinarrizko beharrizan horien atzetik, integrazioarako ezinbestekoak diren kulturaren eta harremanen zutabea ere lantzea proposatzen da. Horretarako baliabide eta aukera ezberdinak eskaini eta landu daitezke:

- Elkarte eta entitate hauek harrera egin duten pertsona horien interes edo beharrak zeintzuk diren ezagutu dezakete, eta honen arabera orientazioa eskaini.
- Elkarte eta entitate ezberdinen arteko informazio eta elkar harremana izatea bultzatu nahi da: elkarren arteko informazioa izan, zerbitzu eta antolatutako ekimenak koordinatu, bikoizketak ekidin.
- Horrez gain, herriko beste hainbat eragilerekin kontaktua sortzeko aukera kontuan izan:
 - Aisialdia: aisialdiko eragile ezberdinak, auzoetako aisialdi taldeak, gaztegunea, ludoteka, etab.
 - Hezkuntza komunitatea: Hezkuntza arloa eta auzoa elkartuko dituen zubi lan garrantzitsua egin dezakete horretan Guraso Elkarteek. Izan ere, elkarte mota hau ikastetxeak auzoetan integratzeko bide garrantzitsuak izan daitezke.
 - Hizkuntza: hizkuntza ikasteaz gain, egun Zumaian, Euskara hurbiltzeko aukera ezberdinak daude, eta batzuk, mintzapraktika, edo modu informala goan planteatutakoak dira, interesgarriak izan daitezkeenak hizkuntzara hurbiltzeaz gain harremanak egiteko.
 - Emakumea eta generoa: Emakumeon* Etxeak duen erreferentzialtasuna baloreen jarri eta bertan lantzen diren gaiak, tailerrak, ekimen eta ekintzak... hauen berri eman, bertan parte hartzera gonbidatu. Horrez gain, Herriko emakume taldeen zein talde feministen berri emateko aukera dago.
 - Kirola: kirol elkarteak elkar ezagutza eta harremanak lantzeko eta sustatzeko baliagarriak izan daitezkeen espazioak dira, auzoetako kirol elkarteak, klubak, kirol antolatua, baina baita modu ez-formalean ematen dena.

- Kultura: kultura arloko herriko elkarte, entitate edo mugimendu ezagutu eta horien berri eman, horietan parte hartzera gonbidatu: dantza taldeak, antzerki taldeak, kultur elkarteak, musika espresio ezberdinekin zerikusia dutenak, etab. Elkarte hauez gain, Kultur etxeak, hauen dinamikaren berri eman...

- Jatorri batzuetako pertsonak biltzen dituen elkarteak: jatorri bereko pertsonekin bildu, antolatu eta harremantzeko bideak irekitzen dituzte. Beraien jatorriko kultura eta espresio kulturalak mantendu eta garatzeko, adierazteko eta lantzeko ezinbestekoak izango dira espazio hauek.

4. Harrera protokoloa garatzeko urratsak

4.1. Harrera protokoloaren urratsak eragile bakoitzaren arabera

4.1.1. ADMINISTRAZIOA

Harrera protokolo hau Zumaiako Udalaren eskutik sortua izan den neurrian, Harrera protokolo honen ardura eta ekarpenik handiena administrazioaren eginbeharretara bideratua dago.

Ikuspegi honetatik, harrera protokoloa sortzeko prozesuan behin eta berriz agertu denari jarraiki, Zumaiako harrera protokoloaren arduradun nagusia, eta harreraren integritasunera urratsak emateko eragile nagusia da.

Harrera protokoloaren erreferentziak bi guneak aipatuko dira lehendabizi. Erreferentziak bi gune horien azalpenaren ondoren Udaleko gainontzeko sailtan Harrera protokoloari ekarpenik egiteko dauden aukerak azalduko dira.

ERREFERENTZIAZKO BI GUNEAK: ANIZTASUN SAILA ETA IDAZKARITZA-ARRETA ZERBITZUA

Harrera protokolo honetan erreferentziakoak izango diren bi gune nagusiak ditugu aipatutakoak. Bi sail hauen garrantzia azalduko da ondoren:

UDAL ARRETA ZERBITZUA/IDAZKARITZA: Herritar ororen lehendabiziko harremana izan ohi da gune hau: edozein zalantza zein argipenatarako, eta baita hainbat tramite administratiboren lehendabiziko urratsa ere bertatik egin ohi da. Bertatik, Udaleko beste hainbat sail edo ataletara bideratu edo deribatzen dira eskakizunak zein pertsonak modu naturalean. Hori dela eta, gaur egun Herritarrentzat erreferentziakoa den gune hau Harreraren gairako ere erreferentziakoa izatea proposatzen da.

ANIZTASUN SAILA: bigarren atal hau Udal barne mailan eta harrera protokoloan inplikaturako eragile ezberdinentzat erreferentziakoa gunea izatea proposatzen da. Barne mailan, koordinaziorako, informazioa elkartrukatzeko, harreraren gaiarekin aurkitutako edozein zalantza edo oztopo argitzeko erreferentziakoa gunea izango da.

UDAL SAIL BAKOITZAREN EGINBEHAR ETA FUNTZIOEN PROPOSAMENA

Zumaiara etorri berriekin harremana duten sail eta departamentuentzat proposamen bat egiten da hurrengo orriotan. Proposamen honen helburu nagusia iritsi berriekin harremanak dituzten unean hainbat jokabide, irizpide edota eginbehar kontuan hartzea da.

Ondorengo orriotan, atal bakoitzarentzat proposamen berezitu bat egin da.

A. ERROLDA ETA ERREGISTROA

Zumaiako Udalaren baitan eskaintzen diren zerbitzuen artean, erreferentziazkoa dugu lehendabiziko sail hau. Izan ere, herritarrak erroldatzen diren momentu hau izan ohi da, orokorrean, Zumaiara etorri berriekin lehendabiziko kontaktua sortzen den unea. Hori dela eta, garrantzia handiko harrera momentua da Udal erregistroan burutzen den hau. Ikuspegi honetatik, garrantzitsua da zerbitzu hau eskaintzen duten pertsonak, lehen arreta honek iritsi berriengan izan dezakeen eraginaz kontziente izatea.

Beste alde batetik, kontuan izan behar da baita ere Idazkaritzaren baitan hainbat lan eta eginbide ezberdin uztartu behar direla, eta herritarren arreta zerbitzu bat izanik, leku dinamiko batez ari garela. Bertan lanean dauden pertsonak arreta zerbitzu bat eskaintzen dute, baina ezin dute herritar bakoitzarekin denbora luzez lanean aritu. Hori dela eta, oinarritzko informazio guztia zabaltzeko aukera kontuan hartzen da, baina beti ere denbora faktore hori ezin ahaztuta.

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izan daiteke momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana
IDAZKARITZA/ ERROLDA	- Etorri berria erroldatzen den unea	Herriak eskaintzen dituen baliabideen berri eman- GIDA eman	- Baliabideen gida	- Aniztasuna
		Eremu eta gune ezberdinetan parte hartzeko baliabideak eta informazioa eskaini	- Ongi etorri saiorako gonbidapena	- Aniztasuna - Udal Hizkuntza Politika
		Ongi etorri saioa egiteko gonbidapena jasoko duela esan-horretarako FITXA eman betetzeko eta jaso	- Hizkuntza ikasteko baliabide eta aukeren inguruko informazioa.	- Aniztasuna
	- Ongi etorri saioak prestatzeko baliabideak eskaini	Hizkuntza erabilera eta baliabideen berri emateko aukera-GIDAn	- Baliabideen Gidan "markatu"	- Berdintasun Saila
		Erroldatutakoa emakumea den kasuetan, Emakumeon* etxearen informazioa eman	- Emakumeen Jabetze Eskolen informazio eskuorria	- Aniztasuna
	- Erroldatuaren hizkuntza jasotzeko aukera (fitxan)	Ongi etorri saioa egin baino lehen, erroldatu diren herritar berrien profilak (errolda anonimoa) Aniztasun teknikariari pasa		- Aniztasuna
	-Harrerarako koordinazio eta balorazio mahaian/espazioan parte hartu	Zumaian hitz egiten diren hizkuntzak erregistratzen joateko aukera emango luke. Harrera protokoloaren jarraipen	- Erroldaren datuak	- Aniztasuna

B. UDAL EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILA

Hizkuntza integrazio prozesu batean oinarritzeko baliabide nagusia da. Hizkuntza da pertsonon arteko komunikazio bidea, eta beraz, kultura eta jatorri ezberdinen arteko harremanak sustatzeko, hizkuntzaren ezaguera bultzatzea ezinbestekoa da.

Harrera protokolo honek Zumaian ofizialak diren bi hizkuntzetan lan egitea proposatzen duen arren, Euskara eta bereziki ezagutzearen garrantzia azpimarratu nahi du. Kultura eta jatorri ezberdinetako pertsonen arteko zubia Euskara izatea bultzatu nahi da, eta hori dela eta, saiakera berezi bat egin Zumaia etorri berriak Euskarara hurbiltzeko.

Ikuspegi hau kontuan izanik, Udaleko euskara sailari hainbat eginbeharreko proposamen bat egiten zaio honako koadroan:

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
UDAL EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILA	<ul style="list-style-type: none"> - Errolda unean, Euskara ezagutzeko ikastaroen informazioa jaso nahi duen galdetu, hasten direnean informazioa bidaltzeko - Ongi etorri saioetan parte hartzeko aukera - Udal euskara eta hezkuntza sailaren baitan, antolaketa eta programazioan kontuan izan - Informazio saioak antolatzeko aukera -Harrerarako koordinazio eta balorazio mahaian/espazioan parte 	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza ikasteko dauden baliabide ezberdinen bilketa egin: euskara eta euskaltzaleen elkarteak, AEK euskaltegia, etab (AISA ikastaroak...). - Euskara testuinguruan ipini. - Euskara ikasteko baliabideen inguruko informazioa eman. - Hizkuntzaren garrantzia integrazio prozesuan. - Bai modu zuzenean (ekimen bereziak sortu), eta baita zeharkakoan (ohiko programazioan ikuspegia txertatzen) lantzeko aukera kontuan izan. - Hizkuntzak bizi duen egoera, Euskal hizkuntzaren inguruko sentsibilizazioa, testuingurua, garrantzia... - Harrera protokoloaren jarraipen eta balorazioa egin gainontzeko sailekin batera. - Harrera hobetzeko proposamenak eta baliabideak aztertu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Erroldan informatu baliabide eta aukerak - Aniztasun sailak informatzeko aukera - Hizkuntza ikasteko aukera ezberdinen inguruko informazioa - Hitzaldi baterako oinarritzko baliabideak: komunikazioa, edukiak, etab 	<ul style="list-style-type: none"> - Idazkaritza - Aniztasuna - Hainbat gizarte eragile - Aniztasuna - Aniztasuna - Aniztasuna - Aniztasuna 	<ul style="list-style-type: none"> - Urtean behineko maiztasuna. Hasieran, maizago egitea proposatu da, sistematizatu arte.

C. GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuak saila herritarren oinarrizko beharrianak asetzerantz bideratutako zerbitzu bat dugu. Ikuspegi honetatik, etorri berriek izan ditzaketen hainbat beharretan esku hartu eta asetzeko zerbitzuak eskaini ditzakete, baina beti ere, bi arlo edo aspektu kontuan hartuta: alde batetik, departamentu honetatik eskaintzen diren zerbitzuak aukera berdintasun batean eskaintzen zaizkie Zumaiako herritar guztiei, euren jatorria kontuan hartu gabe; eta beraz, herritar guztientzat zerbitzu hauetarako sarbide gisa baldintza eta eskakizun berak eskatuz. Horren harira, aipatu beharra dago iritsi berrietako batzuk oinarrizko beharrak ase gabe etorriko diren aldi berean, beste hainbat herritar oinarrizko behar hauek aseta etorriko direla edota beren kabuz asetzeko gaitasuna izango dutela.

Beste alde batetik, adierazi beharra dago Harrera Protokolo honen helburua ez dela zerbitzu hauentzat baliabide gehiago sortzea edo eskatzea. Ikuspegi honetatik, harrera protokolo honen helburuetako bat etorri berriei eskaintzen zaizkien baliabide eta zerbitzuak osatzea da, arlo soziala, aisialdikoak, kirol eta kultura arlokoak gehituz, harreraren integritasunera urratsak emateari begira.

Kokapen hau eginda, honako funtzio edo eginbeharrak proposatzen zaizkio gizarte zerbitzuak sailari:

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
GIZARTE ZERBITZUAK	<p>-Gizarte beharrezan artatzea</p> <p>-Informazio saioak antolatzeko aukera (hitzaldiak, jardunaldiak...)</p> <p>-Kultur aniztasunaren eta Gizarte Ongizatearen artean informazioa elkartrukatzeko bitartekoak</p> <p>-Barne mailan lantzeko:</p> <p>-Harrerarako koordinazio eta balorazio mahaian parte hartu</p>	<p>- Ohiko lana, esku hartzeak, deribazioak, etab.</p> <p>-Gizarte Zerbitzuekin zerikusia duten intereseko gaiak egongo balira, hitzaldi zein informazio saioak antolatzeko aukera.</p> <p>-Bi norabidetan antola daitezke: gizarte zerbitzuetako teknikari eta langileentzat, edota hauek herritar edo elkarreentzat</p> <p>-Gizarte Zerbitzuetako hainbat jarduera interesgarriak direla baloratuko balira, kultur aniztasunarekin batera lantzeko aukera kontuan izan</p> <p>-Formazio saioak gizarte zerbitzuetako langileen artean: iritsi berrien kolektibo edo talde batzuen behar edo errealitate espezifikoak lantzeari begira.</p> <p>-Harrera protokoloaren jarraipen eta balorazioa egin gainontzeko sailekin batera.</p> <p>-Harrera hobetzeko proposamenak eta baliabideak aztertu.</p>	<p>Besteak beste, intereseko gaiak izan daitezke: jatorri jakin bateko komunitatea ezagutzeko informazioa, haur babesgabetasun egoerak, etab.</p>	<p>-Giz. Langileak eta aniztasuna</p> <p>-Aniztasuna</p> <p>-Beste gizarte eragileekin</p> <p>- Aniztasuna</p> <p>- Aniztasuna</p> <p>-Behar izatekotan Aniztasunarekin.</p> <p>-Aniztasuna</p>	<p>- Integrazio kulturala eta harremanak lantzen hasteko aukera</p> <p>- (Urtean behineko maiztasuna)</p>

D. UDALTZAINGOA

Sail honetan lanean diharduten pertsonak, modu batean edo bestean, hainbat etorri berriekin harremana izan ohi dute, eta kasu batzuetan, lehen harrera edo arreta ere egin ohi dute. Hori dela eta, garrantzitsua da Zumaiaiko udaltzainek harreraren gaiarekin eta jatorri eta kultur aniztasunaren gaiarekin duten harremana eta eragin gaitasuna balioan jartzea.

Azken urte honetan, etorri berriekin dituzten harreman horretan honako egoerak identifikatu dira:

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
UDALTZAINGOA	<ul style="list-style-type: none"> - Klean esku hartze bat egin behar denean iritsi berri den pertsona batekin -Sentsibilizazioa eta formazioa jaso (barne mailan): .Iritsi berrien egoera, beharrian eta errealitatea ezagutzera bidean lanketa .Gorroto delituen lanketa egin -Sentsibilizazioa kanpo mailan - Harrerarako koordinazio eta balorazio mahaiaren parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Lehen harrerarako baliabideak eskaintzeko aukera. Informazioa, nora jo dezakeen... - Formazioa jasotzeko aukera. Irizpideak adostu lan esku hartzeetarako - Etorri berriei Udaltzaingoaren lanaren inguruan informatu, baita etorri berrien eskubide eta betebeharren inguruan ere - Harrera hobetzeko proposamenak eta baliabideak aztertu 	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabideen gida - Gizarte ongizateko zerbitzuetarako sarbidea(zerb. Ezberdinak) 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Zerbitzuekin - Aniztasuna - Aniztasuna - Beste hainbat gizarte eragilerekin - Aniztasunarekin - Gizarte eragileak - Aniztasuna 	

E. GAZTERIA

Adin jakin bateko herritarrekin zuzenean lan egiten da sail honetatik, haur, nerabe zein gazteentzat eskaini eta antolatutako zerbitzuen bitartez (0-30 urte). Ludoteka, Udalekuak edota Gaztegunea ditugu, besteak beste, sail honetatik etorri berriekin harreman edo kontaktu zuzena duten baliabide nagusiak. Hori dela eta, hiru gune hauetan esku hartzea eta harreraren gaia lantzea behar beharrezkoa ikusten da.

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
GAZTERIA	<ul style="list-style-type: none"> - Etorri berriak diren herritarren aurrean, - Etorri berriaren zalantza eta orientazio beharrei erantzuten saiatu - Ongi etorri Herrira - Iritsi berriak diren herritarren aurrean (Gaztegunea, ludoteka) - Harrerarako koordinazio eta balorazio mahaian parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Zumaiak haur, gazte eta nerabeentzat dituen zerbitzuen inguruko informazioa eman - 0-30 urteko pertsonak emakumeak diren kasuetan, Emakumeen Ahaldunderako Eskolen berri eman, bereziki "Emakumeen begirada anitzak gurutzatu" - Informazioa bilatu eta orientazioa eman eta beharrezkoa den kasuetan beste guneetarako deribazioak (GiDAn jasotakoa) - Bertan parte hartzeko aukera Udaletik antolatutako aisialdi, ekipamendu eta programazioaren berri emateko aukera - Lehen harrera ez-formala egitea, informazio guneetara bideratzea - Harrera hobetzeko proposamenak eta baliabideak aztertu 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaztegunea eta ludoteka - Udalekuak - Emakumeen Ahaldunderako Eskolen informazio liburuxka - Hezkuntza Saila (matrikulazioak) - Enplegu bulegoa (mankomunitatea) - Hizkuntza: EPA, AEK - ... - Emakumeon* Etxea - Zerbitzuaren osaera eta helburu nagusiak - Espazio eta programazio horietan parte hartzeko gonbitea luzatu - Herriko baliabideen gida eskaini - Behar izanez gero, gizarte ongizatera joateko aukera eskaini 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaztegunea eta ludotekaren hezitzaileekin-Josune - Aniztasuna - Berdintasun saila - Beste hainbat sail - Gizarte eragileak - Aniztasuna - Aniztasuna - Gizarte zerb. - Aniztasuna 	

F. KIROLAK:

Kirol sailak urtero argitaratzen du ikastaroen eskuorria eta bertan, kirol elkarten harremanetarako datuak txertatu egiten dira, zuzenean, beraiekin harremanetan jartzeko, nahi izanez gero. Erabilgarria izan daiteke Ongi Etorri saioan aipatzeko

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
KIROLAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko kirol ekimenen berri eman (Udalak edo elkarteek antolatutako ongietorri saioan) - Sentsibilizazioa eta formazioa jaso kirol ekimen antolaketan eta kirol aniztasunaren ikuspegia txertatzeko -Elkarteen berri eman (gidan jasota) -Kiroldegiko informazioa helarazi -Harrerarako koordinazio eta ebaluazio mahaian parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Errealitatea ezagutzeko aukera eman, zer kirol mota dauden, euskal herrian, eta bereziki, zumaian zein diren gehienbat praktikatzen direnak... - Formazioa jasotzeko aukera. Irizpideak adostu lan esku hartzeetarako - Lehen harrerarako baliabideak eskaintzeko aukera. - Informazioa, nora jo dezakeen... -Hobekuntzak eta proposamenak egiteko 	<ul style="list-style-type: none"> - Kiroldegian eginiko euskarria banatu, harremanak errazteko 	<ul style="list-style-type: none"> - Aniztasuna - Kirol elkarteak -Beste hainbat gizarte eragilerekin 	

G. BERDINTASUNA

Arlo hau harrera protokolo honetan zeharkakotasunez landu beharreko gaia dela baloratzen da. Izan ere, etorri berrien artean emakumeek, euren genero identitateak baldintzatutako berezitasunak dituzte, bai migrazio prozesuan eta baita Errenteriara heltzean ere. Hori dela eta, Berdintasun Arloarekin elkarlan estua egitea proposatzen da protokolo honetan.

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
BERDINTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Ongi etorri Herrira - Kultur desberdineko emakumeei zuzendutako laguntza taldea osatu, beharrezkoa balitz - Herriko eragile ezberdinek antolatutako baliabideekin koordinatu (eta osatu) - Berdintasun saileko eta emakumeekin zerikusia duen programazioaren berri eman - Barne antolaketa eta programazioan kontuan izan - Harrerarako koordinazio eta ebaluazio mahaian parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Bertan parte hartzeko aukera Berdintasun sailetik antolatzen eta eskaintzen diren zerbitzu eta baliabideak ezagutzera eman. Parte hartzeko gonbitea luzatu - Estereotipo eta aurreiritziak lantzeko eta hausteko emakumeen arteko elkargunea izango den espazioa sortu, sustatu eta dinamizatu - Harreraren gaiarekin zerikusia duten ekimen eta ekintzetan genero ikuspegia uztartzeko baliabideak eskaini - Jatorri eta kultur aniztasunarekin zerikusia duten programazioak, edo baita bestelako informazio interesgarria bidali - Bai modu zuzenean, eta baita zeharkakoan (ohiko programazioan ikuspegia txertatzen) lantzeko aukera - Harrera hobetzeko proposamenak egin eta aztertu 	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuaren osaera eta helburu nagusiak - Emakumeen Ahalduntzeko Eskolen informazio liburuxkak- - Emakumeon*Etxea - Genero ikuspegia txertatzeko irizpideak - Programazioa bidali 	<ul style="list-style-type: none"> - Aniztasuna - Aniztasuna - Gizarte Zerbitzuak - Aniztasuna - Aniztasuna - Aniztasuna - Aniztasuna 	

H. LIBURUTEGIA

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan nire FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
LIBURUTEGIA	<ul style="list-style-type: none"> - Etorri berriekin harremana dagoen momentuan (ordenagailuetara datozenak, hurrekin datozen gurasoak, etab.) - Barne mailan: - Hurrekin 	<ul style="list-style-type: none"> - Ordenagailurako baimena ematen zaien momentuan Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinen berri eman - Herri mailako beste hainbat ekimen edo gertaeren berri eman - Formazioa eta sentsibilizazioa landu liburutegiko langileen artean - Ipuin kontaketak antolatu gaiaren inguruan 	<ul style="list-style-type: none"> - Webgunearen erreferentzia eman - Baliabideen gida eman 	<ul style="list-style-type: none"> - Kultura - Aniztasuna - Aniztasuna - Aniztasuna 	

I. KULTURA

Kultura arloak garrantzia handia du integrazio prozesuaren baitan eman beharreko hainbat urrats lantzeko. Kultura arloan etorri berriek duten parte hartzea bultzatu nahi da protokolo honekin, kultur arloko eragile eta elkarteetan euren parte hartzea sustatuz alde batetik, eta euren jatorriko praktika kulturalak garatzeko aukerak eskainiz, bestetik.

Oinarri hau harturik, kultura arloan proposatzen diren aukera edo eginbeharrak honakoak dira:

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerkusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan nire FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
KULTURA	<ul style="list-style-type: none"> - Ongi etorri Herrira - Kultur ekimenen antolaketan jatorri eta kultur aniztasunaren gaia kontuan izan - Harrerarako koordinazio eta ebaluazio bileran parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko ekimen garrantzitsuenen berri eman. Bertako kulturarekin lotuak daudenak, - Jaien eta Jai Batzordearen inguruko informazioa eman eta bertan parte hartzeko aukera eskaini. - Kultur aniztasuna ikusarazten duten Zumaiaiko ohiko dinamiken berri eman. - Herrian kulturaz gozatzeko eta bizitzeko dituzten erraztasunen inguruan informatu. - Bai modu zuzenean (kultur etxetik, Aniztasun sailarekin elkarlanean antolatuta), eta baita zeharkakoan (ohiko programazioan ikuspegia txertatzen) lantzeko aukera kontuan izan - Urtean behin ebaluazioan parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Kultur programazioa biltzen duten euskarriak, web orrien helbideak, etab. 	<ul style="list-style-type: none"> - Aniztasuna - Herriko eragileak - Aniztasuna - Aniztasuna 	

J. TURISMOA

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
TURISMOA	<ul style="list-style-type: none"> - Herriaren ikuspegi zabala eskaini: historia, hizkuntzaren garrantzia, euskal kultura, geoparkea... - Aisialdia aukeren berri eman -Harrerarako koordinazio eta balorazio mahai-espazioan parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Zumaiko Udalaren baliabideen GIDA eman - Harrera protokoloaren jarraipen eta balorazioa: Harrera hobetzeko proposamenak eta baliabideak aztertu 		<ul style="list-style-type: none"> -Aniztasuna -Aniztasuna 	

K. HEZKUNTZA

Hezkuntza arloan Udalak dituen eskuduntza eta baliabideak mugatuak dira, Eusko Jaurlaritzako sailaren esku baitaude zerbitzu eta baliabide gehienak. Udalak, ikastetxe eta formazio zentroen mantentze eta berritze lanak ditu bere gain, baina horrez gain, ikastetxeetan harreraren gaiarekin edota aniztasunaren kudeaketarekin egiten den lanketan esku hartu edo eragiteko gaitasunik ez daukate.

Hala ere, aipatu beharrekoa da gaur egun Ikastetxe eta formazio zentroetako ordezkari guztiek berdintasun arloarekin bilkura bat egiten dutela, eskualdeka, eta herrian bertan, hezkidetzaren programa adosteko, eta urtean zehar, hainbat ekimen antolatzen.

Hezkuntzaren atal honetan, Udaleko hezkuntza sailatik bultzatu beharreko lan edo urratsak proposatzen dira, kanpoan geratuko direlarik (1) Berdintasun mahai horretatik egin daitekeen aniztasunaren lanketa (aniztasun teknikariaren esku geratuz) eta baita Hezkuntza eremuko protokolo proposamena ere.

TEKNIKARIA / ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
HEZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> - Eskoletan harrera protokoloa martxan jartzeko baliabideak eta harremanak egiten laguntzeko aukera -Harrerarako koordinazio eta balorazio mahai-espazioan parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Harrera protokoloaren inguruan informatu daiteke, Udalak hartu duen erabakiaren berri, protokoloa martxan jartzeak ekar ditzakeen aldaketak... - Harrera protokoloaren jarraipen eta balorazioa: Harrera hobetzeko proposamenak eta baliabideak aztertu 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola bakoitzak Harrera protokoloa du - Ikastetxeetan baliabideen gida eskaintzeko aukera eman -Udalak eskura jar ditzakeen baliabideak: hizkuntza ikasteko, formazioa... 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeak -Aniztasuna -Aniztasuna -ikastetxeak -Aniztasuna -Ikastetxeak 	

4.1.2. GIZARTE ERAGILEAK

Zumaiako gizarte eragileek paper oso garrantzitsua dute Harrera Protokolo honen garatze eta martxan jartzean. Izan ere, Harrera Protokolo honek etorri berriak Zumaiako herritar, elkarte eta eragile ezberdinekin harremanetan jartzeko saiakera berezia egin nahi du, protokolo honek helburu nagusitzat etorri berrien eta bertakoen arteko harreman eta loturak indartzea baitu, harreman sareak eta arlo sozioafektiboak landuz, elkar ezagutza eta elkar aitortza sustatuko delakoan.

Ikuspegi honetatik, protokolo honekin herritar eta eragile anitzengana iristea da asmoa, ez bakarrik kultur espresio edota jatorri ezberdinetako elkarteengana bakarrik, baizik eta Zumaiako Kultur, Aisialdi, Kirol edota beste hainbat arlotako elkarte eta eragileengana ere.

Hala ere, ulertzen dugu elkarte eta eragile bakoitzaren interes eta inplikazio maila ezberdina izan daitekeela. Hori dela eta, ondorengo koadroan jasotzen diren edukiak, elkarteentzat, orokorrean egindako gomendio edo aukera sorta bat da.

Herriko elkarteekin eginiko bilerak:

- Emakumeon* Etxea
- Darahli, Sahararen aldeko taldea
- Bakea kultur elkarte (meskita)
- Errefuxiatuen harrera taldea
- Larraina, euskara taldea
- Malen Etxea, emakume migranteen elkarte

ARLOA	Harrerarekin zerikusia duten egoera posibleak	Zein izango da momentu horretan FUNTZIOA edo EGINBEHARRA?	Zein BALIABIDE eskaini, deribatu...	Koordinazioa eta harremana	Besterik
ZUMAIAKO ELKARTEGINTZA	<p>Ongi etorri Herrira</p> <p>Formazio eta informazio saioak antolatzeko aukera</p> <p>Elkarte bakoitzak harreraren gaiari eskain diezaiokeenaz hausnartu</p>	<p>Norberaren elkartetik egiten den lanaren eta ekimenen berri emateko aukera. Elkartearen jardun nagusia azaldu eta deialdi konkretuetan edota elkartean bertan parte hartzeko aukera zabaldu.</p> <p>Harrera protokoloarekin zein jatorri eta kultur aniztasunaren gaiarekin zerikusia duten lanak egiteko (Jatorrizko kulturak/gizarteak, Harrera gizartea/ kultura(k))</p> <p>Harreraren gaiarekin ekimen puntualak antolatzeko aukera (edota jatorri eta kultur aniztasuna lantzeko baliagarriak izan daitezkeenak)</p>		<p>- Aniztasuna</p> <p>- Aniztasuna</p> <p>- Aniztasuna</p>	
	<p>Harrerarako koordinazio eta balorazio mahai-espazioan parte hartu</p>	<p>Harrera protokoloaren jarraipen eta balorazioa.</p> <p>Harrera hobetzeko proposamenak eta baliabideak aztertu.</p> <p>Erroldatu berriei zerbitzu edo aukera ezberdinak eskaintzeko aukera: herria ezagutzeko oinarritzko bisitaldia, erreferentziako pertsonak sortzea, etab.</p>		<p>- Aniztasuna</p> <p>- Herriko elkarte ezberdinak</p>	

5. Koordinazio eta baloraziorako irizpideak

5.1 Koordinazio proposamena

Azken puntu honetan, Zumaiara etorri berrien Harrera Protokoloa martxan jartzearen ondorioz sortu beharreko koordinaziorako esparru eta egitekoak zehazten dira.

Koordinaziorako esparruak eta bitartekoak zehazteak protokoloaren martxan jartzea eta honen urte guztiko funtzionamendu eta eginbidea ahalbidetuko du. Proposamen honen oinarrian kokatzen da Zumaiako Udaleko Aniztasun saila, berau izango baita protokolo honen oinarria landu eta martxan jartzearen arduradun nagusia.

Herriko harrera egiten duten eragile, entitate eta administrazioaren artean koordinazioa sustatzea prozesu honetako helburu nagusietako bat da. Besteak beste, honako arrazoiek bultzatuta egin nahi da koordinaziorako proposamen bat:

- Egun eskaintzen den harreraren integritasuna eta kalitatea bermatu, osatu eta hobetu nahi da.
- Elkarteen arteko informazioa, zabalpena eta elkarren berri izatea garrantzitsua dela uste dugu, egun elkarteen artean dagoen informazio falta edo gabezia horri erantzuten dio.
- KUDEAKETAREN ikuspegitik, herrian egun dauden baliabideak modu egokiagoan kudeatzera bultza gaitzakeelako.
- Elkarre batzuetan errepikatzen diren zerbitzuak (errepikatzea beharrezkoa ez dela ikusten den kasuetan) ezagutu ahal izateko, eta batez ere, elkarren inguruko informazioa eta inplikaturako eragile guztien arteko elkar informazio, harreman eta elkarrekintza bultzatzeko.

Aniztasun sailak, beraz, paper garrantzitsua jokatu du koordinazio lan honetan. Sailaren funtzio nagusiak honako izango dira:

- Harrera protokoloa osatzen duten hiru zutabe edo oinarrien arteko koordinazioa sustatuko du, harrera instituzionala, harrera herritarra eta hezkuntza eremuko harrera uztartuz.
- Harrera egiten duten eragileen artean informazioa eta eduki nagusiak bildu eta zabaltzearen ardura izango du, hau da, modu batean edo bestean harrerarekin zerikusia duten edukiak zentralizatuko diren gunea izango da.
- Koordinaziorako bilera, jarraipen edota beste edonolako koordinaziorako esparruak antolatu eta kudeatzeaz arduratuko da.
- Koordinaziorako antolaketaren jarraipena eta balorazioa egiteaz arduratuko da Aniztasun saila.

Ikuspegi hori kontuan izanda, jarraian aurkezten da harrera protokoloko eremu bakoitzarentzat egiten den proposamena.

5.1.1. ADMINISTRAZIOA

Administrazio egiturarekin koordinazioa jarraikortasun batekin egingo da, izan ere, egunerokoa sail eta departamenduen arteko harreman eta kolaboraziorako joera dago Aniztasun sailaren aldetik.

Harrera protokoloak biltzen dituen urrats ezberdinak martxan jartzeari begira, sail guztien arteko elkar harremana baino, Aniztasun teknikariarekin zuzeneko harremana izatea proposatzen da. Beharrezkoa den kasuetan, urratsen bat sail bat baina gehiagoren artean antolatuko bada, sail horiekin espazio bateratuetan lan egitea proposatzen da.

Momentuz, urtean elkarrekin lan egiteko **saio bakarra** proposatzen da: ordura arte egindako lana konpartitu, balorazio konpartitu bat osatu eta aurrera begirako erronka eta aldaketen inguruan hitz egiteko litzake honako saio hau. Saio honetan, sail bakoitzak egindako lana ezagutzeko aukera izango dute administrazioko gainontzeko kideek, eta aurrera begirako erronkak elkarlanean adostea ahalbidetuko du.

5.1.2. GIZARTE ERAGILEAK

Gizarte eragileekin modu antzerakoan lan egitea proposatzen da. Erreferentziatzko gune gisa Aniztasun saila proposatzen da, eta bertatik, eragileen arteko harreman eta elkarrekintza sustatzea.

Eragileekin lan egiteko aukera gisa, **urtean gutxienez deialdi bateratu egitea proposatzen da.** Deialdi horretan hainbat eduki lantzea proposatzen da:

- Lehendabiziko deialdian, ordura arte protokoloaren baitan egindako lanaren balorazioa osatuko da. Balorazioa egiteko aldagai ezberdinak har daitezke kontuan: protokoloari ezarritako helburuen betetze maila, elkarrekin inplikazioa eta hauen aniztasuna, eragile gehiago inplikatzeko aukera eta gaitasuna, elkarrekin artean komunikatzeko eta elkarrekin lanean aritzeko aukera eta gaitasunak, etab. Horrez gain, behar eta erronka berrien lehen ideia zaparrada bat egin daiteke saio honetan.
- Bigarren deialdian, lehendabizikoan jasotako ekarpen eta baloraziotik abiatutako proposamen bat aurkez daiteke, eta berau elkarrekin guztien artean landu.

Eragile hauen guztien artean informazioa elkartrukatzeko, eta koordinazio zein elkarlan estuago bat sustatzeari begira, hiru proposamen hauek kontuan hartzea proposatzen da:

- Elkarrekin eta eragile guztiek Zumaiako baliabideen gida izateko aukera kontuan izan, bi ikuspegitatik: gainontzeko baliabide edo zerbitzuen berri izatea garrantzitsua da barne mailan edo beraien ekimen baten ondorioz harremanen bat sortu nahi izanez gero, baina bestetik, etorri berriren batekin lehendabiziko harrera informala egiten badute, pertsona berri horri eskaintzeko edo emateko.
- Baliabideen gidaz gain, gida horretan aterako ez den informazio osagarriarekin dokumentu bat egiteko aukera.

5.1.3. HEZKUNTZA KOMUNITATEA

Hezkuntza komunitatearekin egin beharreko koordinazio lana nagusiki Berdintasun Arloarekin batera sortutako ikastetxeen arteko koordinazio esparru hori erabiltzea proposatzen da.

Esperientziak eta kezak konpartitzeko gune aproposa da, eta Hezkuntza komunitatearen protokoloan proposatzen den bezala, euskarri eta bitarteko ezberdinen inguruan elkarlanean aritzeko baliagarria izan daiteke.

Hala ere, gune honez gain, Udal Eskola Kontseilua ere kontuan hartzeko gune bat izatea aipatu beharra dago. Izan ere, bertan Hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile guztiak bilduko dira espazio ofizial batean, eta bertan gai hau lantzea ezinbestekotzat jotzen da (urtean behineko maiztasunarekin, gutxienez): guraso elkarteak, ikastetxeak eta udal ordezkariak.